

BISITARIENTZAKO WIFI-A	
DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA	
Arduraduna	Nor arduratuko da zure datuak tratatzeaz? EJIE SA IFK: A01022664 Posta-helbidea: Mediterraneoaren hiribidea, 14, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba Telefonoa: 945 017 300 Helbide elektronikoa: ejje@ejje.eus Datuak Babesteko Ordezkariekin harremana izateko, idatzi helbide honetara: dpo@ejje.eus
Helburua	Zertarako tratatzen ditugu zure datuak? EJIE S.A.-k honako helburuetarako tratatzen ditu emandako datuak: <ul style="list-style-type: none"> • Interneterako sarbidea eskaintzeko EJIE S.Aren instalazioetara sartzen diren pertsonen, Wi-Fi kanal seguru baten bidez.
Legitimazioa	Zerk legitimatzen du zure datuak tratatzea? Honako lege hauetan oinarri hartuta tratatu ditugu zure datuak: <ul style="list-style-type: none"> • DBEO: 6.1.b) Datuak tratatzea ezinbestekoa da interesduna parte duen kontratu bat gauzatuko bada.
Hartzaileak	Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak? <ul style="list-style-type: none"> • Datu pertsonalak kudeatzeko ez da zertan datuok hirugarrenei laga, EJIE S.Ak bete behar dituen legezko betebeharrak betetzeko ez bada. • Datuak kudeatzeak ez du esan nahi datu horiek nazioartean transferituko direnik.
Datuak gordetzea	Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak? Gehenez ere sei hilabetez gordeko dira bildutako datu pertsonalak.
Eskubideak	Zein eskubide dituzu guri datuak eman ostean? <ul style="list-style-type: none"> • Edozeinek dauka eskubidea ziur jakiteko ea EJIE S.A. bere datu pertsonalak tratatzen ari ote den. • Pertsona interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, bai eta zehatzak ez diren datuak zuzen daitezela eskatzeko ere, edo, hala badagokio, datuak ezabatu daitezela eskatzeko, besteak beste datu horiek dagoeneko ez badira beharrezkoak jaso ziren helburuetarako. • Kasu jakin batzuetan, pertsona interesdunek aukera dute beren datuen tratamendua muga dadila eskatzeko. Mugatzea eskatuz gero,

	<p>erreklamazioak egin edo erreklamazioen aurrean babesteko soilik gordeko ditugu.</p> <ul style="list-style-type: none">• Kasu jakin batzuetan, eta pertsona interesdunen egoera bereziren batekin lotutako arrazoiaren ondorioz, interesdunek aukeran izango dute beren datuak tratatzerik ez dutela nahi adierazteko. Hala eginez gero, EJIE SAK datu horiek tratatzeari utziko dio, nahitaezko legezko arrazoiaren bategatik ez bada, edo erreklamazioen bat gauzatzeko edo erreklamazioen aurrean defendatzeko ez bada.• Interesdunek EJIE SArri eman dizkioten datuak beste norabait eramateko moduan jartzeko eskatzerik badute, edonork erabiltzeko moduko eta mekanikoki irakurtzeko moduko formatu egituratu batean, haiek deskargatzeko edo EJIE SAtik beste erakunde batera bidaltzeko.• Eskubideak gauzatzeko, bidali mezu bathonako helbide honetara, NANaren kopia bat edo nortasuna egiaztatzeko beste agiri baliokideren bat ere gehituta: lop-d-ejje@ejje.eus• Gainera, eskubideak zuk nahi bezala baliatzerik ez baduzu izan, aukera izango duzu erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Agentzian, batik bat, www.aepd.es orrialdean adierazitako posta-helbidearen edo helbide elektronikoaren bidez.
SEGURTASUNA	<ul style="list-style-type: none">• Datuak konfidentziasunez tratatuko ditugu, eta antolaketa-neurri tekniko egokiak baliatuko ditugu datuok tratatzeko, ez daitezela aldatu, galdu edo beste nolabait tratatu eta inork ez ditzan baimenik gabe eskuratu.